BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3916

AGINDUA, 2020ko irailaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez ebazten baita 2020-2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako plangintza aldatzea eta 2020-2021 ikasturterako ituntzea.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez, deialdia egin zen 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta berriak izenpetzeko, eta 2016-2017 ikasturtean itundu beharreko taldeak zehazteko.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2019ko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez, 2020-2021 eta 2021-2022 arteko ikasturteetako planifikazioa aldatzeko eta itun berriak egiteko eskabideak aurkezteko epea ireki zen.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez ebazten da 2020-2021eko eta 2021-2022ko ikasturteetarako plangintza aldatzea eta itun berriak izenpetzea.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2020ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez, 2020-2021 ikasturterako itundu beharreko unitateak zehazteko eskabideak aurkezteko epea ireki zen.

Hezkuntzako sailburuaren 2020ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez, agindu hau aldatzen da: 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta berriak izenpetzeko eta 2016-2017 ikasturtean itundu beharreko taldeak zehazteko deialdia egin zuen agindua. Horrez gain, agindu honen bidez, eskabideak aurkezteko beste epe bat irekitzen da, 202-/2021 eta 2021-2022 ikasturteetarako plangintza aldatzeko eta 2020-2021 ikasturtea ituntzeko.

Ikastetxeek aurkeztutako eskabideak aztertu eta irakaskuntza ezberdinetan proposamenak egin ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– 2020-2021eko eta 2021-2022ko ikasturteetarako itunpeko ikastetxeek duten plangintzaren aldaketa onartzea, heziketa-ziklo bakoitzeko talde kopurua zehaztuta, I. eranskinaren arabera.

2. artikulua.– 2020-2021 ikasturterako ituntzea onartzea, heziketa-zikloka; agindu honen II. eranskinean zehaztu dira zenbatekoa, unitate-kopurua, hizkuntza-eredua eta itun-araubidea.

3. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean azaltzen diren ikastetxeei hezkuntza-ituna ukatzea. eranskinean bertan azaltzen dira erabaki hori hartzeko arrazoiak.

4. artikulua.– Hezkuntza-itunen Araudia onartzen duen irailaren 8ko 298/87 Dekretuaren 32. eta 33. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriaz, itun osoak dituzten ikastetxeek ez dute diru-kopururik jasotzerik izango ikasleengandik irakaskuntza dela-eta.

5. artikulua.– Itunpeko ikastetxeak sostengatzeko modulu ekonomikoen arabera, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legean jasotakoen arabera, kalkulatu dira eranskinetan zehaztutako zenbatekoak –modulu ekonomiko horiek eguneratu egin dira–.

2021. urteko lehenengo bi lauhilekoei dagokienez, Aurrekontuen Legeak 2021eko ekitaldirako ezartzen dituen ekonomia-moduluak aplikatzearen ondorioz egin beharreko doikuntzak egingo dira, garaia heltzen denean.

Agindu honetan agertzen diren diru-zenbatekoak gehienekoak dira, eta barnean hartzen dituzte irakasleen eta gainerako langileen gastuak.

Goragoko paragrafoan ezarritakoa hala bada ere, ordainketa eskuordetuaren sistemak eragiten dien mailetan, honako honen arabera ordainduko zaie antzinatasuna inoren kontura lan egiten duten langileei: ikastetxean irakasle bakoitzak duen antzinatasunaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 16a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

Lurralde Historikoa	Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Taldeak					
					2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022
BIZKAIA	Bilbao	CPES Arangoya BHIP	Goi-Mailako LH	1. Anatomia Patologikoa eta Zitodiagnosia , egunekoa					1	1
				2. Anatomia Patologikoa eta Zitodiagnosia , egunekoa					0	1
	Bilbao	CPES Sta. María De Artagan BHIP	Goi-Mailako LH	1. Gizarteratzea, egunekoa					1	1
				2. Gizarteratzea, egunekoa					0	1

II. ERANSKINA

Lurralde Historikoa	Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Finantzaketa	Taldeak	Eredua	Zenbatekoa
BIZKAIA	Bilbao	CPES Arangoya BHIP	Goi-Mailako LH	1. Anatomia Patologikoa eta Zitodiagnosia , egunekoa	Partziala	1	A	103.921,99
	Bilbao	CPES Sta. María De Artagan BHIP	Goi-Mailako LH	1. Gizarteratzea, egunekoa	Partziala	1	B	96.593,18

III. ERANSKINA

Ukatzeko arrazoiak: 1.– 2020ko maiatzaren 27ko Aginduan ezarritako adierazleak ez dira aldi berean betetzen.
2.– Prestakuntza-eskaintza nahikoa dago dagoen eskarirako.

Lurralde Historikoa	Herria	Ikastetxea	Maila	Ukatzeko arrazoiak
ARABA	Iruña Oka	CPES Apostólico San José BHIP	Erdi-Mailako LH	1
BIZKAIA	Amorebieta-Etxano	CPES Orue Eskola BHIP	Goi-Mailako LH	2
	Barakaldo	CPES Ikasauto BHIP	Goi-Mailako LH	1